

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



MATERIAL BERRIAK MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Masterra material berrien arloan espezializatu nahi dutenei zuzenduta dago. Hauxe da «Material Berriak» unibertsitate arteko masterraren helburua: ikasleei material berrien esparruan eta arlo oso ezberdinetan –biomaterialak, nanomaterialak, material adimendunak, energiarako materialak, elektronikoa, katalisia, etab.– sintesi-, karakterizazio-, propietate- eta aplikazio-metodologiarik berrienei buruzko prestakuntza sendoa

ematea. Gainera, zientziaren eta garapenaren eremuan erabakiak hartzeko eta taldeko ikerlanak egiteko gaitasunak lantzen dira masterreko programan.

Masterra egiteko zenbait beka eskaintzen dira, finantzatzaileak honako hauek izanik: BCMaterials, CIC Energigune, CIC Nanogune eta Kantabriako Unibertsitateko Zientzia Fakultatea.

SARBIDEA

Gradua edo lizentzia Fisikan, Kimikan edo Ingeniaritzan. Batzorde Akademikoak baimena eman dezake beste titulu batzuetatik (Biologia, Medikuntza, Ingurumen Zientziak, etab.) sartzeko.

IRTEERA PROFESIONALAK

Ikerkuntzaren arloan: enpresetan eta material berriak garatu eta ikertzen dituzten ikerketa-zentroetan eta teknologia-zentroetan

Sarbide zuzena doktorego-programetan, baita nazioartekoetan ere.

ONARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:	Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa), UPV/EHU. Facultad de Ciencias (Santander), UC.
Irakaskuntza mota:	Eskolan bertakoa.
Hizkuntza:	Gaztelania.
Gutxi gorabeherako prezioa:	2.200-2.400 €.
Egutegia:	Urritik uztaiera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / 1 ikasturte

<u>Nahitaezko Gaiak</u> 20 ECTS kreditu	<u>Hautazko Gaiak</u> 20 ECTS kreditu	<u>Proiektuak / Ikerketa-lanak</u> 20 ECTS kreditu	<u>Gutzira</u> 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Materialen Zientziarako Sarrera.
- Material Berrien Sintesi eta Prozesamendua.
- Material Berrien Karakterizazioa.
- Laborategiko Entsegu Praktikoak Material Berriekin.

Hautazkoak (materialak):

- Material Adimendunak edo Multifuntzionalak.
- Katalisirako Materialak.
- Nanomaterialak eta Nanoteknologia.
- Biomedikuntzarako Material Berriak.
- Elektronikarako Material Berriak.
- Energiarako Material Berriak.
- Metalen Aleazio Berezia.

Hautazkoak (materia orokorrak):

- Presio altuetako teknikak.
- Puntako Material Berriei buruzko Mintegiak.
- Dokumentazio eta Idazkera Zientifikoa.
- Materialak Ikertzeko Europako Instalazio Handiak.
- Arriskuen Prebentzioa Material Berrietan eta Birziklapenean.
- Material Berrien Simulazioa eta Eredugintza.

HARREMANETARAKO

Arduraduna:

Alfredo Garcia Arribas

Posta elektronikoa:

alfredo.garcia@ehu.es

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

